

ELHUYAR FUNDAZIOA

**2024KO ABENDUAREN 31KO
URTEKO KONTUAK**

ELHUYAR FUNDAZIOA

2024KO ETA 2023KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIEN EGOERA BALANTZEA (EUROAK)
(OHARRAK 1, 2, 3 ETA 4)

AKTIBOA	OHARRA	2024	2023
A. AKTIBO EZ-KORRONTEA		1.505.205	1.542.223
I. Ibilgetu ukiezina	6	30.254	16.734
1. Garapena		6.032	10.342
5. Informatika-aplikazioak		3.467	6.392
9. Bestelako ibilgetu ukiezina		20.755	-
III. Ibilgetu materiala	5	1.241.065	1.291.603
1. Lursailak eta eraikuntzak		1.057.440	1.104.698
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak		183.625	186.905
V. Epe luzerako inbertsioak taldeko entitateetan, baita elkartuetan ere	7	229.801	229.801
1. Ondare-fresna		229.801	229.801
VI. Epe luzerako finantza-inbertsioak	8	4.085	4.085
1. Ondare-fresnak		4.205	4.205
3. Zorren balio adierazgarriak		(3.005)	(3.005)
5. Bestelako finantza-aktiboak		2.885	2.885
B. AKTIBO KORRONTEA		3.084.786	2.592.650
I. Izakinak		3.881	23.630
1. Jarduerara zuzendutako aktiboak		3.881	21.356
6. Hornitzaileentzako aurrerakinak		-	2.274
III. Merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	9	2.808.736	2.263.442
1. Salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak		485.908	507.915
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak		62.651	16.440
3. Hainbat zordun		20.650	131.900
6. Herri Administrazioekiko beste kreditu batzuk	17	2.239.527	1.607.187
V. Epe laburrerako finantza-inbertsioak		993	993
5. Bestelako finantza-aktiboak		993	993
VI. Epe laburrerako aldizkakotzeak		16.352	9.643
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		254.824	294.942
1. Diruzaintza		254.824	294.942
AKTIBOA GUZTIRA		4.589.991	4.134.873
<hr/>			
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRA	2024	2023
A. ONDARE GARBIA		3.312.777	2.581.585
A.1 Funts propioak		1.344.239	1.208.744
I. Zuzkidura fundazionala / Funts soziala	11	350.323	350.323
1. Zuzkidura fundazionala / Funts soziala		350.323	350.323
II. Erreserbak	12	859.267	844.883
2. Bestelako erreserbak		859.267	844.883
IV. Ekitaldiko soberakinak	12	134.649	13.538
A. 3 Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	13	1.968.538	1.372.841
I. Diru-laguntzak		1.968.538	1.372.841
B. PASIBO EZ-KORRONTEA		259.777	262.554
II. Epe luzerako zorrak		259.777	262.554
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak	14	213.479	224.119
3. Finantza-errentamenduen ondoriozko hartzekodunak	14	40.809	37.785
5. Bestelako finantza-pasiboak	15	5.489	650
C. PASIBO KORRONTEA		1.017.437	1.290.734
II. Epe laburrerako zorrak		74.533	80.892
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak	14	50.330	57.639
3. Finantza-errentamenduen ondoriozko hartzekodunak	14	23.453	23.253
5. Bestelako finantza-pasiboak	15	750	-
III. Epe laburrerako zorrak taldeko entitateekin eta elkartuekin		1.198	186.413
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	16	767.401	893.873
1. Hornitzaileak		143.512	112.343
2. Hornitzaileak, taldeko entitateak eta elkartuak		34.556	79.279
3. Hainbat hartzekodun		103.225	114.440
4. Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak)		867	49.605
6. Herri Administrazioekiko beste zor batzuk	17	485.241	538.206
VI. Epe laburrerako aldizkakotzeak		174.305	129.556
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		4.589.991	4.134.873

ELHUYAR FUNDAZIOA
2024 ETA 2023KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN GALDU-IRABAZIEN
KONTUAK (Euroak)
(OHARRAK 1, 2, 3 ETA 4)

	OHARRA	2024	2023
A) EKITALDIKO SOBERAKINA			
1. Entitatearen sarrerak, bere jardueraren ondoriozkoak		2.232.766	1.944.175
a) Afiliatuen eta erabiltzaileen kuotak		27.625	28.015
c) Sustapenen, babesleen eta laguntzaileen ondoriozko sarrerak		335.939	359.338
d) Ekitaldiaren soberakinera egotzitako diru-laguntzak		1.869.202	1.556.822
3. Amaitutako produktuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketak		(17.474)	-
5. Hornikuntzak		(443.987)	(396.685)
6. Bestelako ustiapen-sarrerak		2.730.219	2.528.253
7. Ekitaldiko soberakinaren birsaillkapenengatiko ondare aldakuntzak		(3.291.556)	(3.087.638)
a) Soldadak, ordainsariak eta antzekoak		(2.475.045)	(2.331.819)
b) Gizarte-kargak	18 c)	(816.511)	(755.819)
8. Bestelako ustiapen-gastuak		(950.772)	(860.206)
a) Kanpoko zerbitzuak		(915.757)	(815.664)
b) Zergak		(24.154)	(25.860)
c) Merkataritza-eragiketen ondoriozko galerak, nariadurak eta aldaketak		(50)	(130)
d) Kudeaketa arunteko bestelako gastuak		(10.811)	(18.552)
9. Ibilgetuaren amortizazioa	5 y 6	(108.283)	(103.083)
10. Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko soberakinera eramandakoak	13	12.271	9.569
a) Ekitaldiaren soberakinera egotzitako kapital diru-laguntzak		12.271	9.569
12. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitza eta nariadura		(826)	-
a) Nariadurak eta galerak		(826)	-
13. Bestelako emaitzak		3.000	6.512
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		165.358	40.897
13. Finantza-sarrerak		11	4
b) Balio negoziagarriak eta beste finantza-tresna batzuk		11	4
b2) Hirugarren batzuenak		11	4
14. Finantza-gastuak		(30.720)	(27.364)
a) Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko zorren ondoriozkoak		(874)	(6.269)
b) Hirugarren batzuekiko zorren ondoriozkoak		(29.846)	(21.095)
16. Truke-aldeak		-	1
A.2) FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA		(30.709)	(27.359)
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA		134.649	13.538
A.4) Ekitaldiko soberakinean egotzitako ondare garbiko aldakuntza		134.649	13.538
3. Hartutako diru-laguntzak		607.968	7.471
B.1) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuengatiko ondare garbiko aldakuntza		607.968	7.471
3. Hartutako diru-laguntzak		(12.271)	(9.569)
C.1) Ekitaldiko soberakinaren birsaillkapenengatiko ondare aldakuntzak		(12.271)	(9.569)
D) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuengatiko ondare garbiko aldakuntza		595.697	(2.098)
F) Errorengatik egindako doikuntzak		846	(22)
I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK EKITALDIAN		731.192	11.418

ELHUYAR FUNDAZIOA

2024 ETA 2023KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIEN DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIAK

(Euroak)

(OHARRAK 1, 2, 3 ETA 4)

	OHARRA	2024	2023
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
1. Ekitaldiko zerga aurreko soberakina		134.649	13.538
2. Emaitzaren doikuntzak		127.597	119.582
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)	5 eta 6	108.283	103.083
b) Nariaduragatik egindako balio-zuzenketak (+/-)		50	130
c) Hornidura-aldaketak (+/-)		-	(1.422)
d) Diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuaren egozpena (-)	13	(12.271)	(9.569)
e) Ibilgetuaren bajen eta besterentzeen emaitzak (+/-)	4 eta 5	826	-
g) Sarrera finantzarioak (-)		(11)	(4)
h) Gastu finantzarioak (+)		30.720	27.364
3. Kapital korrontearen aldaketak		(613.181)	(314.567)
a) Izakinak (+/-)		19.749	(2.274)
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak (+/-)		(545.344)	(425.841)
c) Bestelako aktibo korronteak (+/-)		(6.709)	(7.537)
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak (+/-)		(125.626)	65.458
e) Bestelako pasibo korronteak (+/-)		44.749	55.627
4. Ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuak		(30.709)	(27.360)
a) Interesen ordainketa (-)		(30.720)	(27.364)
c) Interes-kobrantzak (+)		11	4
5. Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak		(381.644)	(208.807)
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
6. Inbertsioen ordainketak (-)		(72.091)	(81.150)
b) Ibilgetu ukiezina		(20.755)	(4.960)
c) Ibilgetu materiala		(51.336)	(76.190)
8. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak		(72.091)	(81.150)
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
9. Ondare-tresnen kobrantzak eta ordainketak		607.968	7.471
c) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (+)		607.968	7.471
10. Pasibo finantzarioko tresnen kobrantzak eta ordainketak		(194.351)	(2.724)
a) Jaulkipena			
2. Kreditu-entitateekiko zorrak (+)		77.164	39.519
b) Itzulketak eta amortizazioak			
2. Kreditu-entitateekiko zorrak (-)		(91.889)	(33.051)
3. Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko zorrak (-)		(185.215)	(4.564)
4. Bestelako zorrak (-)		5.589	(4.628)
11. Finantzaketa-jardueretako diru-fluxuak		413.617	4.747
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/GUTXITZE GARBIA			
Ekitaldia edo baliokideak ekitaldi-hasieran		294.942	580.152
Ekitaldia edo baliokideak ekitaldi-amaieran		254.824	294.942

ELHUYAR FUNDAZIOA

2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI

DAGOKION MEMORIA

(1) Erakundearen jarduera-

Erakundea 2002ko uztailaren 12an eratu zen Usurbilen. Erakundearen helburu soziala da zientzia eta teknologiaren esparruan, dibulgazio-, sustapen-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea eta sustatzea, bai eta euskararen garapen osoaren bidean -normalizazioaren zein estandarizazioaren eremuetan- aholkularitza-, dibulgazio-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea eta sustatzea ere, euskal gizarte eleaniztunaren testuinguruan.

Helburu soziala lortzeko, Fundazioak honako jarduera hauek egin ditzake:

- a) Euskal Herriko zientzia-ikerketa eta garapen teknologikoaren ezagutaraztea Euskal Herrian zein munduan.
- b) Hezkuntza-sistemaren eta Zientzia eta Teknologiako sistemaren arteko harremanak bultzatzea argitalpen, jardunaldi, topaketa, mintegi, etab.en bidez.
- c) Zientziaren eta teknologiaren komunikazioaren alorrean trebakuntza sustatzea.
- d) Masa-hedabideen bidez zientziaren eta teknologiaren gizarteratzea sustatu, bultzatu eta laguntzea.
- e) Zientziaren eta teknologiaren gizarteratzean eta ikerketa eta garapen zientifiko-teknikoan diharduten pertsoneri edota erakundeei laguntza eta orientabideak ematea.
- f) Naturaren eta ingurumenaren defentsa eta ikerketa bultzatzea.
- g) Euskararen gizarte-normalizazioa bultzatzea eta bideratzea, eta, horretarako, beharrezko ikerketa- eta garapen-jarduerak sustatzea eta gauzatzea.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gizartean txertatzeko bultzatzea, eta, bereziki, hizkuntzaren tratamendurako baliabide informatikoen alorrean ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa egitea eta sustatzea.

- i) Lexikografiako eta terminologiako lanak (hiztegiak, glosarioak, thesaurusak...) eta itzulpenak -batez ere, zientziaren eta teknologiaren alorrean- egitea.
- j) Bere helburuak lortzeko behar diren enpresak, unitateak eta institutuak sortzea, garatzea eta/edo kudeatzea, Fundazioari aplikagarria zaion legerian jasotakoaren arabera.
- k) Informazioaren komunikazioan eta hizkuntzaren corpusaren nahiz estatusaren normalizazioan Elhuyarrek pilotutako esperientzia eta jakintza garapen bidean dauden herrietako hizkuntza-komunitate minorizatuak transferitzeko lankidetzak-proiektuak egitea.
- l) Eta, oro har, aipatutako antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi jardura.

(2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak-

- a) Irudi zehatza-

Urteko kontuak Erakundearen kontabilitate-erregistroetatik lortzen dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko erakundeetara egokitze arauen arabera eta irabazi asmorik gabeko erakundearen jardun-planaren ereduaren arabera aurkezten dira. Ondarearen, finantza-egoeraren eta ekitaldian izan diren emaitzen irudi zehatza azaltzen dute, eta behar bezala aurkezteko zenbait birsailkapen hartzen dituzte barnean.

2023ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak 2024ko ekainaren 19an Erakundearen Patronatuaren Batzarrak onartu zituen.

- b) Kontabilitate-printzipioak-

Urteko kontu hauek lantzeko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak memoria honen 4. oharrean laburbildutakoak dira. Urteko kontu hauek prestatzean, ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira.

- c) Informazioa alderatzea-

Merkataritza-legeriari jarraiki, balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren kontu-sail bakoitzarekin batera, ixten den ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak aurkezten ditu erakundearen Patronatuak konparazio gisa.

d) Informazioaren erantzukizuna eta egindako estimazioak-

Urteko kontu hauetan bildutako informazioa Erakundearen Administrazioaren erantzukizuna izango da.

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion Erakundearen urteko kontuetan, Erakundearen administrazioarek egindako zenbatespenak erabili dira hainbat kasutan, bertan bildu diren zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko. Funtsean, zenbatespenak alderdi hauei buruzkoak dira:

- Aktibo jakin batzuen nariaduraren ondoriozko galerak.
- Aktibo materialen eta ukiezinen balio-bizitza.

Zenbatespen horiek urteko kontu hauek egin zirenean aztertutako gertakarien inguruan eskura genuen informaziorik onenarekin egin ziren arren, gerta liteke hurrengo ekitaldietan horiek aldaraztera (gorantz nahiz beherantz) behartuko gaituzten gertaerak izatea etorkizunean. Hori geroko ikuspegiarekin egingo genuke, etorkizuneko irabazien eta galeren kontuetan zenbatespenean izandako aldaketak izango lituzkeen ondorioak aitortuz betiere.

(3) Ekitaldiko gaineratikoa-

Zuzendaritzak 2024 urteko gaineratikoaren aplikazioari buruz eginiko proposamena, Patronatuak onar dezan, ondorengo da:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	2024	2023
Ekitaldiko emaitza, gaineratutako galdu-irabazien kontuaren arabera	134.649	13.538
Honako kontuetan aplika daiteke:		
Beste erreserbak	134.649	13.538
Guztira	134.649	13.538

(4) Erregistro- eta balorazio-arauak-

Hauek dira urteko kontuak formulatzean aplikatutako kontabilitate-irizpiderik adierazgarrienak:

a) Ibilgetu ukiezina-

Ikerketa eta garapeneko gastuak

2024ko abenduaren 31n, data horretako balantzearen epigrafe horrek "Opinion Mining", "Transmeans", "Webguneak" eta "Collins Hiztegiak" proiektuei dagozkien ikerketa- eta garapen-proiektuak biltzen ditu.

Sozietateak proiektu indibidualizatueta bideratzen diren ekitaldiko ikerketa-gastu guztiak kapitalizatzeko irizpideari jarraitzen dio, betiere ikerketa arrakastatsua espero ahal izateko arrazoiak daudenean. Kapitalizatutako gastuen amortizazioa modu linealean egiten da, bost urteko gehienezko epean, proiektu horiek abian jartzen diren momentutik hasita.

Aplikazio informatikoak

Erakundearen kudeaketarako oinarriko sistema informatikoak eskuratzearen eta garatzearen ondoriozko kostuei dagokie. Aplikazio informatikoen amortizazioa modu linealean egiten da, aplikazio bakoitza ustiatzen hasi eta lau urteko aldi batean.

Sistema informatikoak mantentzearen kostuak, berriz, kostu horiek sortzen diren ekitaldiaren emaitzei egotziko zaizkie.

b) Ibilgetu materiala-

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuan baloratuta dago, amortizazio metatuaz eta izandako narriaduraren ondoriozko galerez garbi (5. oharra).

Elementu osoak ordeztu edo berritzeak eta xede den ondasunaren balio-bizitza, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa areagotzen duten handitu, modernizatu edo hobetzeko kostuak ibilgetu materialaren zenbatekorik handienaren arabera kontabilizatzen dira, ordeztu edo berritu diren elementuak kontabilitatetik kenduta.

Mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldizkako gastuak emaitzei egozten zaizkie, sorpen-printzipioari jarraiki, gastu horiek egin diren ekitaldiko kostu gisa.

Ibilgetu materialaren amortizazioa urtez urteko inbertsioen arabera finkatuta dago, betiere metodo lineala aplikatuta, eta kontuen arabera.

Kontu bakoitzean sartzten diren ondasunetarako honako ehuneko hauek aplikatu dira:

	-Urteak-
Eraikuntzak	33
Tresneria	10
Beste instalazioak	10
Altzariak	10
Ekipamendu informatikoak	4

Ibilgetu materialari gaineratzen zaizkion elementuen amortizazioa, bestalde, elementu horiek funtzionatzen hasi eta hurrengo hilean hasiko da erregistratzen.

c) Finantzaz bestelako aktiboen balioa narriatzearen ondoriozko galerak-

Aktiboei narriatzearen ondoriozko galera-probak egiten zaizkie, baldin eta gertakizunen edo zirkunstantzia-aldaketaren batek kontabilitate-balioa agian ez dela berreskuratuko adierazten badu. Narriatzearen ondoriozko galeratzat hartzen da aktiboaren kontabilitate-balioaren eta balio berreskuragarriaren arteko aldea. Balio berreskuragarria, berriz, aktiboaren arazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo erabilerako balioa da, bietatik handiena.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean narriaduragatik aitortutako galerak itzuli egiten dira, baldin eta dagokien zenbateko berreskuragarriaren gaineko estimazioak aldatu eta aktiboaren balioa areagotzen bada; hain zuzen, saneamendua egin ezean aktiboak liburuetan izango zuen balioaz gehienez ere.

Ekitaldian, Erakundeak ez du aktiboen balioa narriatzearen ondoriozko zenbatekorik erregistratu.

d) Errentamendu operatiboak-

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentamenduan hartutako ondasunaren jabetza eta funtsean ondasun horri dagozkion arrisku eta abantaila guztiak errentatzaileari dagozkio.

Erakundeak errentari gisa jarduten duenean, errentamenduaren ondoriozko sarrerak modu linealean ezartzen dira galdu-irabazien kontuan, akordioen arabera eta kontratuaren iraupenaren arabera.

e) Finantza-tresnak-

Erakundeak finantza-tresnen kapituluan erregistratu ditu erakunde bateko finantza-aktibo bat sortzen duten kontratuak eta, aldi berean, finantza-pasibo bat edo beste erakunde batean ondare-tresna bat sortzen

dutenak. Horrenbestez, araua hau aplikatzekoa zaie honako finantza-tresna hauei:

a) Finantza-aktiboak-

Finantza-aktiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

1) Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta Entitateak inbertsioari eusten badio —kontratua gauzatzearen ondoriozko eskudiru-fluxuak jasotzeko— eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek eskudiru-fluxuak sortzen badituzte zehaztutako datetan —eskudiru-fluxu horiek soilik izango dira printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak—.

Ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko kobrantza nagusiak eta interesak baino ez diren kontratuko eskudiru-fluxuak, berez, mailegu arruntaren edo ohikoaren izaera duen akordio bati dagozkio. Edonola ere, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostu ahal izango da.

Oro har, kategoria honetan merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak sartzen dira (ondasun-salmentan eta erakundearen trafiko-eragiketen ondoriozko zerbitzugintzan sortzen diren finantza-aktiboak, kobrantza atzeratua dutenak), baita merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko kredituak ere, hau da, ondare-tresna eta eratorriak ez izan arren merkataritza-jatorririk ez dutenak eta zenbateko zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak dituztenak, baldin eta entitateak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik badatoz. Hau da, kategoria horren barruan daude kobratu beharreko maileguak eta kontuak, baita mugaeguna finkatua duen zorraren balio adierazgarriak eta zenbatekoa zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak ere, betiere merkatu aktibo batean negoziatzen direnean eta sozietateak horiek mugaegunera arte kontserbatzeko asmoa eta ahalmena duenean.

Hasiera batean, arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuetan baloratuko dira. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gaineko ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero da— beren

balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Ondorengo balorazioa, beraz, kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten kredituak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira, narriatu direnean izan ezik. Jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz, finantza-aktibo baten kontratuzko eskudiru-fluxuak aldatzen direnean, erakundeak aztertuko du ea bidezkoa den balio-narriaduraren ondoriozko galera kontabilizatzea.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta dagoen balioaren artean dagoen diferentziaren ondoriozko narriadurak erregistratzen ditu erakundeak. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, egiten dira beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak, baldin eta kategoria horren barnean hartzen den finantza-aktibo baten balioa edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten batera baloratutako finantza-aktiboen talde baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, eta narriadura hori, hasierako aitormenaren ondoren, izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorio izan bada eta gertaera horiek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, beharbada zordunaren kaudimen-gabeziaren ondorioz.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren ondoriozko galera bi hauen arteko aldea da: batetik, liburuetan duten balioa eta, bestetik, zenbatespenen arabera sortuko dituzten etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa —barnean direla, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzearen emaitzazkoak—. Hasierako aitormenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira.

Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak eta horien itzulketak —baldin eta galera horren zenbatekoa ondorengo gertakizun batekin zerikusia duten arrazoiengatik murrizten bada— gastu edo diru-sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da itzulketaregunean aktiboak liburuetan aitortuta duen balioa, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez balitz.

2) Kostuko finantza-aktiboak

Kategoria honen barruan sartzen dira, besteak beste, taldeko enpresen, taldeaniztunen eta elkartuen ondareko inbertsioak, baita ondare-tresnetan egindako gainerako inbertsioak ere, baldin eta horien arrazoizko balioa ezin bada zehaztu tresna bererako merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa erreferentziatzat hartuta, edo ezin bada zenbatespen fidagarririk lortu.

Partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira —haien interesak kontingenteak badira—, baita hasiera batean galdu-irabazien kontuan aldaketak dituen arrazoizko balioaren zorroan sailkatzea bidezkoa zen beste edozein finantza-aktibo ere, haien arrazoizko balioaren zenbatespen fidagarria lortzerik ez dagoenean.

Hasiera batean, kostuan baloratuko dira, hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuan.

Ondorengo balorazioa haien kostuaren arabera egingo da, ken nariaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen zenbateko metatua.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, betiere inbertsio batek liburuetan duen balioa berreskurazina denaren ebidentzia objektiboa badago. Erakundeak dagozkion nariadurak liburu-etako balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko diferentziagatik erregistratzen ditu. Zenbateko berreskuragarria da bi zenbateko hauen arteko handiena: batetik, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak, eta, bestetik, inbertsioaren ondoriozko etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa. Ondare-tresnen kasuan balio horiek kalkulatzen dira, bai partaidetzapeko enpresak egindako dibidendu-banaketaren ondorioz jasotzea espero diren zenbatekoen zenbatespenen bidez eta enpresa horretako inbertsioa besterentzearen ondorioz edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasotzea espero diren zenbatekoen zenbatespenaren bidez, bai partaidetzapeko enpresa sortzea espero den eskudiru-fluxuetan izango duen partaidetza kalkulatuz —ohiko jardueren ondorioz, edo besterentzeen edo kontuetan baja ematearen ondorioz—.

Ondare-tresnetan egindako inbertsioen zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, aktibo mota horien nariaduraren ondoriozko galeraren zenbatespena kalkulatzen da partaidetzapeko erakundearen ondare garbiaren arabera eta balorazioaren datan dauden isilbidezko gainbalioen arabera —

zerga-efektuaz garbi—.Balio hori zehaztean, eta partaidetzapeko enpresak beste batean inbertitu badu, Merkataritza Kodearen irizpideak eta hura garatzeko arauak aplikatuz egindako urteko kontu bateratuetan sartutako ondare garbia hartuko da kontuan.

Balioaren narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen aitormena eta, hala badagokio, horien itzulketa gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga izango da itzulketa-egunean aitortuta egongo zen inbertsioaren liburu-balioa, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez balitz.

Finantza-aktiboen birsailkapena-

Enpresak bere finantza-aktiboak kudeatzeko modua aldatzen duenean, eskudiru-fluxuak sor daitezzen, eraginpean dauden aktibo guztiak birsailkatzen ditu, arau honetako aurreko ataletan ezarritako irizpideen arabera. Kategoria-birsailkapena ez da balantze-bajatzat hartuko, baizik eta balorazio-irizpidearen aldaketatzat.

Honako birsailkapen hauek izan daitezke:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak birsailkatzea galdu-irabazien kontuan aldaketak dituen arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategorian, eta alderantziz.
- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak birsailkatzea ondare garbian aldaketak dituen arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategorian, eta alderantziz.
- Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituen arrazoizko balioko finantza-aktiboak birsailkatzea ondare garbian aldaketak dituen arrazoizko finantza-aktiboen kategorian, eta alderantziz.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak-

Eroste-unearen ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko diru-sarrera gisa aitortzen dira. Kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez aitortzen dira, eta ondare-tresnetan egindako inbertsioetatik datozen dibidenduen ondoriozko diru-sarrerak, berriz, aitortzen dira haiek jasotzeko eskubideak sortu direnean erakundearentzat.

Finantza-aktiboen hasierako balorazioan modu independentean erregistratzen dira honako alderdi hauen arabera: mugaeguna; une horretan sortutako eta mugaeguneratu

gabeko interes esplizituen zenbatekoa; eta eroste-unean organo eskudunak adostutako dibidenduen zenbatekoa.

Era berean, banatutako dibidenduak zalantzarik gabe eroste-dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz —erosi zirenetik partaidetzapekoak sortutako irabaziak baino zenbateko handiagoak banatzeagatik—, ez dira sarreratzat aitortzen eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Partaidetzapekoak etekinak sortu dituen ala ez erabakitzeko, kontuan hartzen dira, soil-soilik, banakako galdu-irabazien kontuan eroste-dataz geroztik kontabilizatutako etekinak, salbu eta irabazi horien konturako banaketa, zalantzarik gabe, inbertsioaren berreskuratze gisa kalifikatu behar bada, dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

Finantza-aktiboen baja-

Erakundeak finantza-aktiboei baja ematen die finantza-aktiboko eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta horien jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuak sortzen dira, oro har, kaudimengabeziako eta berandutzako arriskuak transmititu badira.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboak liburuetan duen balioaren arteko diferentziak, gehi zuzenean ondare garbian aitortutako zenbateko metatuak, zehazten dute aktibo hori baja ematean sortutako irabazia edo galera, aktibo hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte baita.

Aitzitik, Erakundeak ez die finantza-aktiboei baja ematen, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza-pasiboa aitortzen du, bere jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean atxikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

Taldeko enpresetan, talde aniztunetan eta elkartuetan egindako inbertsioak-

Taldeko enpresetan, talde aniztunetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, hasiera batean, kostuaren arabera baloratzen dira, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera gehi transakzio-kostuak.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, Erakundeak ebaluatuko du inbertsioen balioak narriatu diren. Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta, hala badagokio, horien itzulketa gastu

edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

Narriaduraren ondoriozko zuzenketa aplikatuko da baldin eta inbertsio baten liburu-balioa berreskurazina denaren ebidentzia objektiboa badago. Balio berreskuragarria bi zenbateko hauen arteko handiena da: batetik, arrazoizko balioaren ken salmenta-kostuen zenbatekoa, eta, bestetik, inbertsioetik eratorritako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa —horiek kalkulatu dira, bai partaidetzapeko enpresak egindako dibidenduen banaketaren ondorioz, inbertsioa besterentzearen ondorioz edo kontuetako bajaren ondorioz jasotzea espero den zenbatekoaren bidez, bai partaidetzapeko enpresak sortzea espero den eskudiru-fluxuetan izango duen partaidetzaren zenbatespenaren bidez—.

Berreskura daitekeen zenbatekoaren ebidentzia hoberik ezean, partaidetzapeko erakundearen ondare garbia hartuko da kontuan, balorazioaren egunean dauden isilbidezko gainbalioek zuzenduta.

Ondare-tresnak eta finantza-pasiboak sailkatzen dira itundutako kontratu-akordioaren edukiaren arabera eta funts ekonomikoa kontuan hartuta. Ondare-tresna bat da pasibo guztiak kendu ondoren taldearen ondarean hondar-partaidetza duen kontratua.

Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak-

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta hiru hilabetetik beherako epemugako epe laburrerako beste inbertsio batzuk, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

b) Finantza-pasiboak-

Finantza-pasiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

1) Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituztenean eta arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak.

Mailegu arrunt edo ohiko baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria horretan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira. Kontrako ebidentziarik ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Nolanahi ere, gehienez urtebeteko mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasa ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da— balio nominalaren arabera baloratuko dira, betiere eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean.

Aurreragoko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zorrak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.

Finantza pasiboen baja-

Enpresak finantza-pasibo bati edo haren zati bati baja emango dio betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

Emandako eta jasotako fidantzak-

Obligazio jakin batzuen berme gisa eraturako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira, arrazoizko baliotik nabarmen aldentzen ez den zenbatekoan.

Errentamendu operatiboen ondorioz edo zerbitzugintzen ondorioz emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea hartzen da errentamenduagatik edo zerbitzugintzagatik aldez aurretik egindako ordainketatzat edo kobrantzatzat, eta, errentamendu-aldian edo zerbitzua egiten den aldian, galdu-irabazien kontuari egotzen zaio, betiere salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko diru-sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatetean, geratzen den aldizat hartzen da hitzartutako gutxieneko kontratu-epea; aldi

horretan ezin da zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Epe laburrerako finantza denean, ez da zertan eskudiru-fluxurik deskontatu, baldin eta ondorioa adierazgarria ez bada.

f) Izakinak-

Produktu berrien izakinak produkzio-prezioaren arabera edo merkatuko balioaren arabera –aurrekoa baino txikiagoa bada– baloratzen dira.

Produktu zaharkituen, akastunen edo mugimendu motela dutenen balorazioa euren gauzatze-balio garbira murriztu da.

g) Sustapenen, babesleen eta laguntzaileen ondoriozko sarrerak-

Erakundeak emaitzetan txertatuko ditu baliabideak biltzeko kanpainen ondoriozko sarrerak, baita erakundearen jardueraren helburuetan laguntzeko babesle eta laguntzaileengandik jasotako zenbatekoak ere. Jasotzen diren unean txertatuko dira.

h) Kalte-ordainak-

Indarrean dagoen lan-araudiari jarraiki, Erakundea behartuta dago baldintza jakin batzuetan bere lan-harremanak eteten dizkien enplegatuei kalte-ordainak ordaintzera. Ez dago kontzeptu horretarako hornidura kontabilizatzeko premia sortzen duen arrazoi objektiborik.

i) Dirulaguntzak-

Erakundeak honako irizpide hauek erabiltzen ditu eman zaizkion dirulaguntzak kontabilizatzeko:

- Ustiapeneko dirulaguntzak: Erakundeari ezarritako baldintzak betetzen direla iruditzen zaionean txertatuko dira dirulaguntzak emaitzetara. Horrenbestez, ez dago kobratzeko zentzuzko zalantzarik, eta, dirulaguntzak emaitzetara eramatean, aldi bakoitzean dirulaguntzaren ondoriozko sarreren eta diruz lagundutako gastuen arteko lotura egokia ziurtatuko da.

- Kapitaleko dirulaguntzak: itzulezinak diren dirulaguntzak dira, eta ondare garbira zuzenean egotzitako sarrera gisa erregistratzen dira, betiere emandako zenbatekoan. Haien hasierako erregistroa egiten da emakidaren jakinarazpena jasotakoan, dirulaguntza emateko ebazpen indibidualetan

ezarritako baldintzak betetzeari buruzko zentzuzko zalantzarik ez dagoela erabakitzen den unean.

Hasierako aitorpenean, Erakundeak, batetik, jasotako ondasunak edo zerbitzuak aktibo gisa erregistratzen ditu, eta, bestetik, dagokion gehikuntza ondare garbian. Erregistratzen diren egunetik aurrera, kapitaleko dirulaguntzak emaitzei egozten zaizkie, haiekin finantzatutako aktiboengatik aldian izandako balio-galeraren proportzioan, betiere balio galerarik izan ez dezaketen aktiboak ez badira; kasu horretan, haien inbentarioan baja edo besterentzea egiten den ekitaldiaren emaitzari egotziko zaizkio.

j) Mozkinen gaineko zerga-

Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraituta, Erakundea Sozietateen gaineko Zergaz salbuetsita dago, betiere haren xede soziala edo berariazko helburua osatzen duten jarduerak egitearen ondoriozko errentetarako. Salbuespen horretan ez dira sartzen 9. artikuluan ezartzen ez diren ustiapen ekonomikoaren ondoriozko errendimenduak, ezta ondarearen ondoriozkoak ere.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauko Sozietateen gaineko Zergari buruzko kapituluaren aurreikusten ez diren alderdiei dagokienez, irabazi asmorik gabeko erakundeei aplikatzekoa izango zaie Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren araudi erregulatzailerak, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua.

k) Diru-sarrerak eta gastuak-

Alderdi komunak-

Erakundeak bere jardueraren ohiko garapenaren ondoriozko diru-sarrerak aitortzen ditu, bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrolaren transferentzia gertatzen denean. Une horretan, erakundeak ondasun edo zerbitzu horien truke espero duen kontraprestazioaren zenbatekoa baloratuko du.

Ez da diru-sarrerarik aitortzen elementu homogeneoen trukaketetan —hala nola produktu bukatuen trukaketetan edo bi erakundeen artean truka daitezkeen salgaietan—, produktua beren bezeroei emateko merkataritza-lanean eraginkorrak izan daitezzen.

Aitormena-

Hitzartutako ondasunen edo zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, bete beharreko betebeharra) bezeroari transferitzen zaionean (edo egiten

den heinean) aitortzen ditu erakundeak kontratu baten ondoriozko diru-sarrerak.

Ondasun edo zerbitzu baten (aktibo baten) kontrolak ondare-elementu horren erabilerari buruz erabakitze gaitasuna eta gainerako etekin guztiak funtsean lortzeko gaitasuna adierazten du. Kontrolak barnean hartzen du beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabaki dezaten eta etekinak lor ditzaten eragozteko gaitasuna.

Identifikatzen den bete beharreko betebeharrak bakoitzean (ondasunak ematea edo zerbitzuak egitea), erakundeak, kontratuaren hasieran, zehazten du noiz beteko den bere gain hartutako konpromisoa: denboran zehar beteko den edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoen ondoriozko diru-sarrerak (oro har, zerbitzugintzaren edo ondasunak saltzearen ondoriozkoak) kontratu-betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen-mailaren arabera aitortzen dira, betiere erakundeak aurrerapen-maila neurtzeko informazio fidagarria badu.

Erakundeak aitortu beharreko diru-sarreraren zenbatespenak berrikusten ditu eta, beharrezkoa bada, aldatzen ditu, bere gain hartutako konpromisoa betetzen duen heinean. Berrikuspen horien beharrak ez du nahitaez esanahi eragiketaren amaiera edo emaitza ezin denik fidagarritasunez zenbatetsi.

Data jakin batean, erakundea ez bada betebeharra zenbateraino bete den arrazoiz neurtzeko gai (adibidez, kontratu baten lehenengo etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko izandako kostuak berreskuratzea espero duen, diru-sarrerak eta dagokion kontraprestazioa aitortzen dira soilik ordura arte izandako kostuen zenbateko baliokidean.

Une jakin batean betetzen diren kontratu-betebeharren kasuan, gauzatzearen ondoriozko diru-sarrerak data horretan aitortzen dira. Hori gertatu arte, produktuaren (ondasunen edo zerbitzuen) produkzioan edo fabrikazioan sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Salmentaren edo zerbitzugintzaren ondoriozko diru-sarrera gisa aitortutako kreditu-eskubidea kobratzearen inguruko zalantzak daudenean, narriaduraren ondoriozko galera erregistratuko da narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketaren gastu gisa eta ez diru-sarrera txiki gisa.

Betebeharra denboran zehar betetzea-

Honako irizpide hauetako bat betetzen denean ulertuko da erakundeak aktibo baten kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena) denboran zehar transferitzen duela:

a) Bezeroak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu erakundearen jardueraren ondoriozko etekinak (normalean, zerbitzu bat egitearen ondoriozkoak), betiere erakundeak jarduera garatu ahala, errepikatzen diren zerbitzu batzuetan gertatzen den bezalaxe (segurtasuna edo garbiketa). Kasu horretan, beste erakunde batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke, funtsean, ordura arte egindako lana berriz ere egin beharko.

b) Erakundeak aktibo bat (ukigarria edo ukiezina) produzitzen edo hobetzen du, zehazki jarduera garatu ahala bezeroak kontrolatzen duen aktibo bat (adibidez, bezeroaren lursail batean egindako eraikuntza-zerbitzu bat).

c) Erakundeak aktibo espezifiko bat egiten du bezeroarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexu bat edo zehaztapen bereziak dituen ondasun partikular bat), erabilera alternatiborik gabe, eta erakundeak eskubidea du ordura arte egindako jarduerarengatik kobratzeko (adibidez, bezeroari iritzi profesionala ematen dioten aholkularitza-zerbitzuak).

Aktiboaren gaineko kontrolaren transferentzia denboran zehar egiten ez bada, erakundeak une jakin batean betetzen diren betebeharrarako ezarritako irizpideei jarraikiz aitortzen du diru-sarrera.

Betebeharra une jakin batean betetzearen adierazleak-

Bezeroak aktiboaren kontrola (oro har, ondasun baten kontrola) lortzen duen une zehatza identifikatze aldera, erakundeak adierazle hauek, besteak beste, hartzen ditu kontuan:

a) Bezeroak bere gain hartu ditu aktiboaren jabetzaren berezko arrisku eta etekin adierazgarriak. Puntu hori ebaluatzean, erakundeak baztertu egiten du aktiboa transferitzeko konpromisoaz bestelako betebeharrak sortzen duen edozein arrisku. Adibidez, erakundeak aktiboaren kontrola transferitu ahal izan du, baina aktiboaren bizitza erabilgarrian mantentze-zerbitzuak egiteko betebeharra ordaindu gabe.

b) Erakundeak aktiboaren edukitza fisikoa transferitu du. Hala ere, gerta daiteke edukitza fisikoa bat ez etortzea aktibo baten kontrolarekin. Esate baterako, berrerosketa-akordio batzuetan eta gordailu-akordio batzuetan, bezero edo kontsignatario batek aktiboa lagatzen duen erakundearen kontrolpean dagoen aktibo baten edukitza fisikoa izan dezake eta, hartara, aktibo hori ezin da transferituztat jo. Aitzitik, fakturazioaren ondoren entregatzeko akordioetan, enpresak bezeroaren kontrolpean dagoen aktibo baten edukitza fisikoa izan dezake.

c) Bezeroak aktiboa jaso (onartu) du, kontratu-zehaztapenen arabera. Erakunde batek modu objektiboan zehaztu badezake ondasun edo zerbitzuaren kontrola adostutako zehaztapenen arabera transferitu zaiola bezeroari, azken horren onarpena formaltasun bat da, eta ez luke eraginik

izango kontrolaren transferentziari buruzko zehaztapenean. Adibidez, onarpen-klausula oinarritzen bada zehaztutako tamainaren edo pisuaren arloko ezaugarriak betetzean, erakundeak zehaztu dezake ea irizpide horiek bete diren bezeroaren onarpenaren berrespena jaso aurretik.

Edonola ere, erakundeak ezin badu modu objektiboan zehaztu bezeroari emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, ezin izango du bezeroaren onarpena jaso arte ondorioztatu bezeroak kontrola lortu duela.

